



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO
POBREZIAREN
FEMINIZAZIOA
EZAGUTZEKO DIAGNOSI-
AZTERLANA
LABURPENA**

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

AZTERLANAREN IZENBURUA

**VITORIA -GASTEIZKO POBREZIAREN FEMINIZAZIOA EZAGUTZEKO
DIAGNOSI- AZTERLANA**

BURUTZE-DATA

2005EKO OTSAILA-IRAILA

AZTERLANAREN JARRAIPEN BATZORDEA

Atal Teknikoko soziologo batek, Gizarteratze Zerbitzuko teknikari batek eta Komunitate Jarduerarako Zerbitzuko psikologo batek, hirurak Gizartegintza Saileko langileak, osatzen dute udalaren jarraipen batzordea.

FITXA METODOLOGIKOA

Gizartegintza Sailak UPV-EHUko Genero Taldea kontratatu du azterlana egiteko eta, guztira, 15.670,30 euro (BEZ barne) ordaindu ditu lanagatik

2005eko otsaila eta uztaila bitartean burutu zen lana, nahiz eta bukaerako lana irailera arte ez eman, jarraipena egin duen batzordeko kideek, udal teknikariak, berrikusi ondoren.

Azterlanean erabilitako metodologia bikoitza da:

- Bigarren mailako iturrien analisia, Vitoria-Gasteizko biztanleen egituraren eta pobrezia-aren eraginaren analisia egiteko, generoaren ikuspegitik (Errolda, EIN -Estatistikako Institutu Nazionala-, Eustat, 2004ko PGDI -Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta-, 2003ko Denbora-aurrekontuen inkesta, Gizartegintzako oroit-idazkiak,...)
- Erakundeetako teknikariei eta pobrezia zein emakumearekin zerikusia duten elkarten ordezkari elkarrizketa sakonak egitea eta galde-sortak bidaltzea.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

VITORIA-GASTEIZKO POBREZIAREN FEMINIZAZIOA EZAGUTZEKO DIAGNOSI- AZTERLANA LABURPENA

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

AZTERLANAREN SINTESIA

Azterlana hiru zatitan dago egituratua:

- Generoaren ikuspegitik egindako Vitoria-Gasteizko biztanleen egituraren analisia.
- Pobreziak Vitoria-Gasteizen duen eragina, generoaren ikuspegitik.
- Administrazio Publikoaren eta gai honetan diharduten erakunde sozialen egituraren azterketa.

1.- Generoaren ikuspegitik egindako Vitoria-Gasteizko biztanleen egituraren analisisari dagokionez :

- 2005eko urtarrilaren 1ean 227.194 pertsona bizi ziren Vitoria-Gasteizen eta horietako %50,6 emakumezkoak ziren.

- 1981ez geroztik, Vitoria-Gasteizko biztanleen kopurua %14,4n hazi da, Arabako lurralde historikoan, berriz, %9,2n. Euskal Autonomia Erkidegoan, aldi horretan bertan, %2,7n egin du behera biztanleriak.

Vitoria-Gasteizek beren biztanleriaren hazkundea aldeko migrazio saldoari zor dio. 2004an 1.818 pertsonako saldoa izan zuen. Hala ere, saldo begetatiboa (jaiotza eta heriotzen arteko aldea) ia hutsa da bai jaiotza- bai heriotza-tasak baxuak baitira. EAeren jaiotza-tasa Europar Batasuneko (15) baxuenetarikoa da (2000. urtean Europar Batasuneko batez bestekoa 10,7koa izan zen, erkidegoan, berriz, 8,3koa) Dena den, atzerriko pertsonen etorrerarekin eta *baby boom* garaiko aita-amen belaunaldiarekin jaiotza-tasak datozen urteetan gora egitea espero da.

- Vitoria-Gasteizen dauden gazteen tasa, 2005. urtean, %12,2koa da, EAEn 2001. urtean zegoena baino baxuagoa (%12,8) baita EBean, 15, 2000.ean zegoena baino baxuagoa (%16,8) ere. - Zahartze-tasa %15,6koa da, 2001. urteko EAerena (%17,9) eta 2000.eko EBarena, 15, (%16,3) baino baxuagoa hori ere.

- 2004an, Vitoria-Gasteizko biztanleen batez besteko adina 40,6 urte ziren, gizonezkoen kasuan baxuagoa (39,5 urte) emakumezkoenean (41,7 urte) baino.

- Adinekoen feminizazioa antzematen da Vitoria-Gasteizen (beste gizarte garatuetan gertatzen den bezala). Fenomeno horren adierazle dira honakoak:

- Zahartze-tasa, emakumezkoen kasuan %17,6koa da hirian (gizonezkoena, berriz, %13,5koa)
- Emakumezkoen batez besteko adina (42) gizonezkoena (39,5 urte) baino altuagoa da.
- Espainiar estatuan, 2002an, emakumezkoen bizi-itxaropena 7.4 urte gehiagokoa zen gizonezkoena baino (83,1 urte emakumezkoen kasuan 75,7 gizonezkoenean).
- Vitoria-Gasteizen 85 urte baino gehiago dituzten hamar pertsonatik zazpi emakumezkoak dira.

Fenomeno hori gizonezkoen gehiegizko hilkortasunarekin oso lotua dago: 60 urtetik gora, nabarmen areagotzen da hilkortasuna gizonezkoen artean, emakumezkoen artean, berriz 70 urtetik gora, eta bereziki 80tik gora, orduan baita adierazgarria haien hilkortasuna. Hiltzeko arrazoi ohikoenak tumoreak eta zirkulazio sistemaren akatsak izaten dira.

- Vitoria-Gasteizen bizi diren pertsonen egoera zibilar dagokionez, banandu, dibortziatu edo alargunen %70 emakumezkoak dira. Talde horietan emaku mezkoeen nagusitasuna, batik bat, alargunen aldagaiari zor zaio.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO
POBREZIAREN
FEMINIZAZIOA
EZAGUTZEKO DIAGNOSI-
AZTERLANA
LABURPENA**

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

- Hiru familiatik baten buru emakumezkoa izaten da (% 33,8). Horietako gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak izaten dira; familia buru diren gizonezkoek, berriz, batez beste, 10 urte gehiago izaten dituzte. Horrek adieraz dezake etorkizunean emakumezkoak buru diren familien kopuruak gora egingo duela.

- Vitoria-Gasteizko familien batez besteko pertsona kopurua 2,68koa da. Pertsona bakarrak edo hiru kidek osatzen duten familia kopurua berdina da.

- Familia-zamei dagokionez, hamar urtetan, seme-alabak dituzten familien kopuruak behera egin du, hamar puntu, hain zuzen, eta familia guztien %69 izatetik %59 izatera pasatu da. Horretaz aparte, familien %28,7k 64 urte baino gehiagoko pertsonaren bat dute, eta, %27,3k 18 urte baino gutxiagokoa.

- Hezkuntzari dagokionez, gizonezko zein emakumezkoen eskolatze mailan berdintze aldeko joera dago. Gizonezkoek bereziki zuzendutako prestakuntza ikastaroetan, kasu gutxi badira ere, gero eta emakumezko gehiagok hartzen du parte. Analfabetismo-tasa 1986an zegoen %1etik 2001eko %0,6ra jaitsi da. Emakumezkoen artean (%0,8) gehiago dago gizonezkoen artean (%0,3) baino.

2.- Pobreziak Vitoria-Gasteizen duen eragina, generoaren ikuspegitik :

- Eusko Jaurlaritzaren 2004ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestak (PGDI) pobrezia-egoera bi bereizten ditu:

Mantentze-pobrezia: etxeko beharrei aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik ez duten familiaena. Mantentze-pobreziaren barruan bi kasu bereizten dira:

- o *Pobrezia arriskuaz* ohartarazten dizkiguten egoerak, behar oinarritzkoenak betetzeko diru-sarrerara nahikorik ez dagoenean ematen direnak: jateko, janzteko,...beharra.
- o *Ongizate ezaren arriskuaz* ohartarazten dizkiguten egoerak, gutxieneko ongizate eta erosotasun maila mantentzeko diru-sarrerara nahikorik ez dagoenean ematen direnak

Metatze-pobrezia: pobreziaren muturreko egoera zeinetan familiek ezin baitute gutxieneko ongizaterako oinarritzkoak diren kontsumo-gaiak jarraikortasunez lortzeko gaitasuna.

Pobreziaren feminizazioaz ari garenean pertsona pobreen artean gero eta emakume gehiago dagoela adierazi nahi dugu, izan ere, pobretzeko prozesuek haiei eragiten diete gehien bat.

2000ko PGDIren arabera, Vitoria-Gasteizen norbanakoen mailan, modu batera zein bestera, pobreziaren eragina % 3,8koa da, hau da, erkidegoan dagoena baino txikiagoa (EAEn, %5,2) Hala ere, hirian pobrezian erortzeko arrisku talde deitzen direnak gero eta gehiago dira (atzeritarrak, guraso bakarreko familiak eta lan finkorik ez duten gazteak) eta azkenengo lau urtetan, %146an igo da pobrezia, hau da, 2000an %1,5ekoa zen eta 2004an aipatu %3,8koa.

- Gainera, pobreziaren eragina handiagoa da emakumezkoen ingurunean gizonezkoenean baino. Hau da:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

VITORIA-GASTEIZKO POBREZIAREN FEMINIZAZIOA EZAGUTZEKO DIAGNOSI- AZTERLANA LABURPENA

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

- Norbanako mailan, Vitoria-Gasteizko emakumezkoen artean, mantentze-pobrezia %3,7koa da, gizonezkoen artean, berriz, %2,1ekoa.

Emakumezkoen menpe dauden pertsonengan pobrezia duen eragina %11,4koa da, gizonezkoen menpe daudenen kasuan, berriz, %2,5ekoa da.

- Familia mailan, mota bateko zein besteko pobrezia emakumezkoa buru den etxebizitzetako %12,4n du eragina, batez bestekoa, berriz, %4,8koa da.

- Pertsonen sexua alde batera utzita, ezkongabe edo dibortziatu, banandu eta alargunen artean areagotzen da pobrezia Vitoria-Gasteizen.

- Enplegu arloaren analisiak ere agerian uzten du udalerriko emakumezkoen egoera ahulagoa. 2005eko lehenengo sei hilekoaren datuen arabera, emakumezkoen langabezia-tasa %5,4koa da Araban, gizonezkoenaren bikoitza (%2,7). Gauza bera gertatzen da Arabako enpleguaren analisirako beste bi adierazle nagusiekin: jarduera-tasa eta enplegu-tasa. Lehenengoari dagokionez, gizonezkoen kasuan %80,1era heltzen da eta emakumezkoen kasuan, berriz, %58,2ra. Enplegu-tasaren kasuan, gizonezkoena %77,9koa da eta emakumezkoena, berriz, %55,1ekoa.

Enpleguaren kalitatearen inguruan eta 2004ko EGAILANen datuen arabera, laneko ezegonkortasunak emakume langile gehienei eragiten die. Hau da, gizonezkoen kasuan ezegonkortasuna %20an du eragina, emakumezkoenena, berriz, %70ean. Horretaz aparte, EAEn dauden ordainsarien aldeari buruz eskura ditugun azken datuen arabera, 2002koak, emakumezkoek antzeko lanpostuetan jarduten badute ere urteko 6.611,39 euro gutxiago kobratzen dituzte.

Bukatzeko, 2002ko datuen arabera, Vitoria-Gasteizen lanik gabe dauden hamar pertsonatik zazpi emakumezkoak dira.

- Goian aipatu eremuarekin zerikusia duen beste zerbait da, udalerriko emakumezkoen egoera ahulagoa dela gizonezkoena baino, familia-errenta eta errenta pertsonalaren mailari dagokionez. Familia-errenta eta errenta pertsonalaren estatistikaren arabera (EUSTAT 2001), emakumezkoa buru den Arabako familien batez besteko urteko errenta 24.839 eurokoa da, gizonezkoa buru denena, berriz, 33.889 eurokoa, hau da, urteko 9.050 euro gutxiago.

Errenta pertsonalari dagokionez, eta azterketarako baliatutako iturri beraren arabera, emakumezkoen erdia baino gehiagok (%56) urteko 6.000 euroko edo gutxiagoko errenta jasotzen du, gizonezkoen kasuan, berriz, %20 baino ez dago egoera horretan.

- Gizartegintzaren eremuan, 2004an udalaren gizarte zerbitzuek hirian bizi diren 16.995 pertsona hartu zituzten, horietako %44,1 emakumezkoak ziren. Hartu ziren emakumezkoak hiru familia tipokoak ziren, kopuru aldetik antzera tipo bakoitzekoak: pertsona bakarrekoak, guraso bakarrekoak eta nuklearrak seme-alabekin. Arazo ekonomikoak, autonomia pertsonaleko mugak, elkarbizitzako desajusteak eta laneratze zein gizarteratzeko arazoak dira nagusi.

Gainera, 2004an gizarte zerbitzuen laguntza ekonomikoaren titular diren pertsonen artean asko dira pertsona bakarreko edo guraso bakarreko familia tipoko emakumezkoak, beraz, laguntza ekonomikoaren onuradunak haiek direla ondorioztatzen da, edo kasua denean, haien menpe dauden pertsonak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO
POBREZIAREN
FEMINIZAZIOA
EZAGUTZEKO DIAGNOSI-
AZTERLANA
LABURPENA**

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

- Genero indarkeriak ere zerikusia du pobrezia feminizazioarekin. Araban, 2004an, 370 emakume izan ziren etxeko indarkeriaren biktima. Vitoria-Gasteizen, gizarte zerbitzuetan hartu ziren 8.841 familietako 147k (%1,7) genero indarkeriaren arazoak zituzten.

- Udalerrian, pobrezian eragiten duen beste faktoretako bat dugu inmigrazioaren fenomenoak. Azken urteetan, udalerrian bizi ziren atzerritarren kopuruak bider lau egin du: 2000an 3.339 ziren (erroladatutako pertsonen % 1,5) eta 2005ean 13.063 (%5,7). Erdia baino zertxobait gutxiago emakumezkoak dira, hain zuzen ere, bereziki ahula den taldea, izan ere, alde batetik inmigrante dira, bestetik emakumezkoak.

- Aisialdia izatea eta haren erabilera pertsonen bizitza kalitatea eta gure gizartean dauden desberdintasunak neurtzeko beste faktore garrantzitsua da. 2003ko denbora-aurrekontuen inkestan jaso ziren datuen arabera, emakumezkoek denbora gehiago ematen dute familiakoak zaintzen eta etxeko gauzak egiten gizonzkoek baino, baita aisialdirako gutxiago ere. Hau da, astegunetan emakumezkoek, batez beste, eguneko hiru ordu eta erdiz ematen dituzte etxeko lanak egiten eta 30 minutu familiakoak zaintzen, gizonzkoek, berriz, ordu eta laurden. Aisialdiari dagokionez, larunbatetan gizonzkoek, batez beste, ordu eta erdi gehiago ematen dute aisialdi aktiboko zein pasiboko jardueretan emakumezkoek baino. Laburbilduz, emakumezkoek aisialdirako eta gizarte harremanetarako denbora gutxiago dute gizonzkoek baino, hori horrela dela, gizarte harreman gutxi izaten dira eta hori pobrezia feminizazioarekin oso lotua dago.

Faktore horien guztien analisiak emakumezkoak elkarreragin sozialeko eremuetan egoera ahulagoan daudela erakusten du, baita pobrezia eragina udalerriko emakumezkoengan handiagoa dela ere.

3.- Administrazio Publikoaren eta gai honetan diharduten erakunde sozialen egituraren azterketa.

- EAEko administrazio publikoen analisiak erkidegoan bi gizarte eredu daudela agerrarazten du: alde batetik, arabarra, hain zuzen, gizarte gastua altuagoa duena, orokorrean eta per capita; bestetik, bizkai-gipuzkoarra. Eusko Jaurlaritzak egindako gizarte zerbitzuetako gastuaren inguruko 2002ko inkestaren arabera, Vitoria-Gasteizko Udalak gastu osoaren %16koa gizarte arloan gastatzen du, Bilbo eta Donostiakoak, berriz, %7.

- Euskal erakundeek egindako pobrezia feminizazioaren inguruko definizio argirik ez dago. Ezadostasuna dago pobrezia muga non dagoen erabakitze orduan. Ez dago adostasuna pertsona bat pobrea noiz den erabakitze orduan.

- Pobrezia feminizazioa ezagutu eta identifikatu dute erakunde publikoek, baina agerian gelditzen da horren inguruko berebiziko jarduerarik ez dela burutzen. Programa orokorren bidez egiten zaio aurre pobrezia feminizazioari, besteak beste, diru laguntzen eta gizarteratze programen bidez (Auzolan). Euskal Autonomia Erkidegoan, Gizarte Zerbitzuetako gastuaren %1 baino ez da emakumezkoen sektorerara bideratzen.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

**VITORIA-GASTEIZKO
POBREZIAREN
FEMINIZAZIOA
EZAGUTZEKO DIAGNOSI-
AZTERLANA
LABURPENA**

DEPARTAMENTO DE
INTERVENCIÓN
SOCIAL

GIZARTEGINTZA
SAILA

Fecha: 22/12/2005

- Pobreziaren fenomenoan eragina duen faktore aniztasunak ekiditen du arazoari arlo zehatz batetik aurre egitea. Sail eta erakundeen arteko akordioa behar da, laneko filosofia bera izan dadin baita jarduteko modu bateratua ere. Akordio hori ez dagoela agerian gelditzen da erakunde zein erakunde bakoitzaren barruko sailen arteko koordinazio ezari so eginez. Koordinazio ezaren jatorria, gehien bat, eskumenen banaketan dago, lurralde zein funtzio mailakoetan.

- Vitoria-Gasteizko Udalarri dagokionez, Gizartegintza eta Enplegu Sailek bideratzen dituzten gizarteratzea eta laneratzea errazteko programak dira emakumezkoei zuzendutako ekimen gehien biltzen dituztenak. Gainera, Enplegu Sailak Emakume-plana 2004 du zeinetan prestakuntza jarduerak, laguntzak, diru laguntzak eta emakumeen laneratzea, lanean igotzea zein iraunkortasuna ahalbidetzen duten enpresei ematen zaizkien sariak jasotzen baititu.

- Gizarte eragile zein erakundeak bat datoz esaten denean pobrezia egoera pairatzen duten pertsonen artean emakumezko gehiago dagoela gizonezkoak baino; hala ere, gehienek baieztapen hori berresteko datu objektiborik ez dute.

- Pobreziaren feminizazioan erabakigarriak diren faktoreak zerrendatzean bat datoz elkartek. Banatzea, alargun gelditzea, lan baldintza eskasak, zaintze eta etxeko gauzak egitearekin zerikusia duten ardurak edo inmigrazioa dira, gehien bat, eragina duten faktoreak; laburpen honen bigarren atalean aztertu dira horiek guztiak.

- Gizarte erakundeek pobreziaren feminizazioa definitzean hainbat faktoreren eragina onartzen badute ere, eskaintzen dituzten programek administrazio publikoan nagusi den espezializazioa errepikatzen dute. Programa gutxi dago ikuspuntu batetik baino gehiagotik pobreziarekin lan egiten duena, gutxi dira ere, orokorrean, bai erakundeek bai gizarte eragileek pobreziaren feminizazioari aurre egiteko, espresuki, martxan jartzen dituztenak.